ONDARROAKO BARRI-PAPERA

UDAL BARRIAK

III. Aroa • **2012ko iraila** • 5. zenbakia • Ondarroako Udala • ISBN: BI-2572-2011

>>> ONDARROA 2020 HAUSNARKETA PROZESUA

Herriaren etorkizuna denon esku!

> 2013-2020 urteetarako garapen ekonomikoa bultzatzeko plana egingo du udalak

>> Prozesu parte hartzailea izango da: herritarrek eta elkarteek euren proposamenak egingo dituzte

>>> Plana Elhuyarrek eta Leartibai Garapen Agentziak gidatuko dute

Garapen ekonomikoa eta enplegua sustatzea lehentasunezko kontua da udalarentzat, are gehiago, bi esparru horiek zuzenean kolpatuak izaten ari diren garaiotan. 2013-2020 epealdia kontutan hartuta, garapen ekonomikoaren gaineko hausnarketa egiteko prozesua jarriko da martxan. Prozesuaren hiru eragile nagusiak Lea Artibai Garapen Agentzia, Elhuyar eta Ondarroako Udala izango dira, eta herritarren ekarpenak jasoko dituzte.

Ondarroa historikoki arrantza sektoreari lotua egon da. Sektore horren gainbehera ukaezina den honetan, udalerriaren garapen eta bideragarritasunari buruzko gogoeta abiatzea derrigorrezkoa da. Udalerriaren etorkizuna luzaroan hizketagai izan beharko dugun gaia da eta, gainera, ondorioak norbanako, eragile eta sektore ezberdinen elkarlanetik eratorriko dira.

Horregatik, hausnarketa prozesu honekin, gogoeta horri hasiera ematea bilatzen du udalak. Hausnarketa hori topagune anitza eta jarraia izan beharko da.

Herri bezala ditugun erronkak ez dira udalarenak, ez alderdi politiko batenak ezta alderdi politikoenak ere soilik. Hausnarketa prozesu hau herritar guztiek leku izango duten topagune anitza bilkatzea lortu beharra dago.

Norbanakoek, herriko taldeek, sindikatuek, alderdi politiko guztiek eta eragile sozialek beraien iradokizun eta proposamenak luzatzeko aukera izango duten lekua.

Udalerriaren garapen ekonomikoarekin lotutako erronka nagusiak identifikatzea da helburua, eta horretarako estrategiak proposatuko dituzte partaideek, diagnostikoa egin ostean. Hausnarketa estrategikoa bi arloren inguruan egingo da: **Industria-Arrantza** eta **Merkataritza-Turismoa**, eta **4 fase** barnebilduko dituen prozesua izango da:

1. **Aurrelanak:** Prozesua martxan jarri ahal izateko lanak.
2. **Gaur egungoa:** Jorratuko diren bi arloen gaineko errealitatearen azterketa.
3. **Aurrera begirakoa:** Ondarroako garapen ekonomikorako erronkak identifikatzea eta horiek lortzeko bideak zehaztea.
4. **Amaiera:** Prozesua eta emaitzak herritarrei aurkeztea.

Lanerako guneak 3 izango dira: Bata, arlokako lan taldeak (merkataritza eta arrantza sektoreetako kideak batuko dituztenak). Besteak, kontraste taldeak (mota desberdinetako herritarrak batzeko). Amaitzeko, Garapen batzordea (hor prozesua dinamizatzen duten erakundeak batuko dira eta jarraipena egingo dute).

Honelako hausnarketa prozesuekin, parte hartzearen kultura bultzatuz herritarrak eta eragileak subjetu aktibo bilakatzea bilatzen da. Izan ere, hausnarketa prozesuaz batera, Udal garapen batzordea ernaldu eta martxan jartzeko helburua ere badauka udalak. Hau da, prozesuan ateratzen den ekintza planari jarraipena emango dion batzordea.

Hausnarketa prozesua ondo hasi dadin, herritarrak prozesu honetan parte hartzera animatu nahi ditu udalak, Ondarroaren etorkizuna denon esku baitago. Prozesu honetan parte hartu nahi duenak, Industria-Arrantza edo Merkataritza-Turismoa lan taldeen artean aukeratu beharko du eta **komunikazioa@ondarroakoudala.net**-en edota udaleko **94 683 36 76** telefonoan eman dezake izena.

Auzo batzarrak egingo dira azaroan

> Udalaren egoera ekonomikoaren berri emango da, 2013ko aurrekontuei begira

>> Aurreko urtean jasotako eskari eta ekarpenen balorazioa ere egingo da

Auzo batzarren beste ekitaldi bat egingo da azaroan. Batzar hauetan 2013ko aurrekontuei begira udalaren egoera ekonomikoa eta udalak dituen erronken berri emango da. Era berean, orain arte auzo batzarretan eta kale ibilaldietan jasotako eskaera eta ekarpenen balorazioa egingo da. 2013 urteko ekitaldiari begira, erronka nagusiak izango direnak adostu nahi dira herritar eta udaleko ordezkarien artean.

KALEA	EGUNA	ORDUA	TOKIA
Artabide, Egidazu, Itsasaurre, Antiguako Ama, Zubiaurre	**Azaroak 5** astelehena	19:00	Guzur etxea
Gorozika	**Azaroak 6** martizena	18:30	Elkartea
Errenteria	**Azaroak 6** martizena	18:30	Zubi parean
San Inazio, Harategi kalea, Ikastola kalea, Artibai	**Azaroak 8** eguena	19:00	Kofradia zaharra
Iparkale, TxominAgirre, Pixape, Iparragirre, Kamiñalde, Kale Handi	**Azaroak 12** astelehena	19:00	Kofradia zaharra
Kamiñazpi, iturribarri, Ibaiondo	**Azaroak 13** martitzena	19:00	AAen lokala
Txorierreka, San Juan Txurru, Madalena, Sabin Arana, Erribera, Nasa kalea, Kafeatze, Kantoipe	**Azaroak 15** eguena	19:00	Kofradia zaharra

>>> ONDARROA 2020 HAUSNARKETA PROZESUA

Ondarroa 2020

Elkarrizketak hausnarketa prozesuko partaideekin

> ANTXON USKOLA, Ondarroa 2020 prozesuaren arduraduna

"Zer nahi eta behar dogun jakitea ezinbestekoa da, aukera dagoenean bide hori hartu ahal izateko"

Zer bilatzen du udalak hausnarketa prozesu honekin?
Udalak parte hartzeko eta eztabaidatzeko gune desberdinak ditu zabalik: batzordeak, auzo batzarrak… Gune horietan egunean eguneko arazoei irtenbidea topatzen zaie, eta urteroko plangintzak egiten dira. Baina epe luzerako proiektuak zehazteko foro bat ere beharrezkoa dala uste du udalak, eta hausnarketa prozesu berri hau egokia da horretarako.

Gainera, krisi garaiak aproposak dira hausnarketarako. Nondik gatozan eta nora goiazan pentsatzeko, inguruan daukaguna ikusita. Zer eta nola nahi dogun pentsatu, eta horretarako zer falta jakun. Portuaren beherakada azken 20 urteetan nabarmena izan da, eta horrek herri guztian eragin du. Baina portuak herriaren industri gune oinarrizkoa izaten jarraitzen du, eta potentzial handia dauka. Infraestruktura badaukagu eta zerbait egin behar da horrekin. Zer egin pentsatu behar dugu.

Herriko motor ekonomiko eta sozial diranei eta izan ziranei galdetuko deutsagu hori. Herritik alde egin dabenei ere euren arrazoiei buruz galdetuko deutsagu. Ondarroan bizi edota bizi nahi eta kanpoan lan egiten dabenei, hain zuzen be. Hori dana, akatsak errepikatu ez dagiguzan.

Norabide bat finkatu behar dugu, eta erabaki txikiak ere, eguneroko-ak, harantz bideratu behar ditugu. Herria berreraiki behar dugu, lotarako herri bat bihur ez dadin. Baita be, eguneroko auto mugimenduak gitxitzeko, dirua herrian gelditzeko eta dirua sortzeko. Azken baten, lan-bizi-lo herrian bertan egiteko.

Zein izango da udalaren lana prozesuan zehar?
Herriko enpresa, profesional, aditu eta zerbait esateko daukan ororen esperientzi eta iritziak jasotzea. Eztabaidak sortzea. Arazo, gabezia eta premiak mahai gainean jarri eta batzea. Herriarengan eragina daukien erakundeen Ondarroari buruzko asmoak eta bidean dagozan proiektuak aztertzea, euren artean eta gureekin euki daikiezan interferentzia, duplizitate eta osogarritasunak ikusteko: Foru Aldundia, Eusko Jauraritza, Madril, Bruselas.

Zelan eragingo du prozesuak Ondarroaren etorkizunean?
Herritarrak inplikatzen diran heinean, euren esku egongo da prozesu honen arrakasta edo eragina. Gure etorkizuna guk geuk finkatu nahi izanez gero, holako prozesu batekin hasi behar da. Beraz, aukera aprobetxatu behar dogula uste dot. Gero, hamendik ataratakoak aurrera eroateko aukera izatea beste gauza bat da. Eta udalak hurrengo urteetako aurrekontuak norabide horretan osatu beharko ditu. Zer nahi/behar dogun jakitea ezibestekoa da, aukera dagoenean bide hori hartu ahal izateko.

> AINARA BASURKO, LEARTIBAI garapen agentzia

"Hausnarketa prozesuaren helburua herriaren egoera sozioekonomikoa hobetzeko bidea markatzea da"

Zelakoa da Ondarroaren gaur egungo egoera ekonomikoa?
Azken lau urtetan langabezia bikoiztu egin da (2008an langabezia 7,3koa zen eta momentu honetan, aldiz, 14,34koa) eta gaur egun 60 lan establezimendu gutxiago daude 2008an baino. Ondarroaren egoera ez da batere ona eta ingurune hurbilean ere (Lea Artibaiko udalerrietan eta beste eskualde batzuetan) adierazleek beheranzko joera agertzen dute.

Egoera honen aurrean udalak Ondarroa 2020 egitasmoa ipiniko du martxan, Elhuyar aholkularitza enpresaren eta eskualdeko Garapen Agentziaren laguntzaz (udala Garapen Agentziako kide da Berriatua, Etxebarria, Lekeitio, Markina Xemein eta Ispasterrekin batera). Herriak garapen ekonomikoaren ikuspuntutik bizi duen egoera aztertu eta etorkizuneko erronkak definitzeko.

Zelan sortu zen diagnostiko bat egiteko ideia?
Lea Artibaiko Garapen Agentziako Administrazio Kontseiluan eztabaidatu dugun gaia da. Garrantzitsutzat jo da udalerri bakoitzak bizi duen egoera ekonomikoaren diagnosia egitea eta hurrengo urteetara begira, bere abantaila konpetitiboetan oinarrituz, lan lerro estrategikoak identifikatzea. Ondarroako Udalak hausnarketa hori bere egin du eta garapen ekonomikoan zentratuko den hausnarketa prozesua jarri du martxan Garapen Agentziako teknikarien laguntzaz.

Eskualdeko beste herri batzuk ere prozesu honetan dabiltza, edo aurki abiatuko dira. Ariketa honek posible egingo du, gainera, plan ezberdinen arteko koordinazioa eta eskualde ikuspuntuz garatu behar diren proiektuen identifikazioa.

Plan honekin, beraz, udalak hurrengo urteetara begirako erronkak identifikatuta izango ditu, eta hauen gauzapena batzuetan udal ikuspuntutik bideratu ahalko da eta beste batzuetan, aldiz, eskualde mailan.

Prozesutik ateratzen diren proposamenak aurrera eroateko, zein bide hartu beharko da?
Prozesu honek herriaren "argazki" bateratu bat izatea ahalbideratuko du eta, aldi berean, garapen ekonomiko jasangarri baten bidean herria kokatzeko estrategia nagusiak definitzea.

Estrategia hauek aurrera eramateko, banan-banan aztertu eta ekintza plan batera eraman beharko dira. Hau da, proiektu eta ekintza zehatzak definituko dira eta proiektu hauen bideragarritasuna aztertu. Proiektu hauek aurrera eramango dituena, kasu batzuetan udala izango da (eta beste instituzio batzuk) eta, beste batzuetan, enpresak edo bestelako eragile batzuk. Guzti hau definituta egoteak eta herriko eragile nagusiek ikuspuntua eta estrategia nagusiak konpartitzeak, erraztu egingo du indarrak batzea eta lehentasunak finkatzea. Eragile ezberdinak, azken helburu berdinaren inguruan. Udala eta eskualdeko garapen agentzia helburu hauen bitartekari eraginkor, bideratzaile, bateratzaile eta lorpenerako bermea izango dira.

Prozesu hau noiz hasi eta noiz bukatzen da?
Prozesua 3-4 hilabeteko epean gauzatuko da. Hau da, epe honetan diagnosia eta etorkizuneko erronka eta lan lerro nagusiak identifikatuta egongo dira. Hala ere, prozesuaren bukaera, ibilbidearen hasiera baino ez da izango. Esan bezala, 2020ra begira definituriko erronkak errealitate bihurtzeko, proiektu zehatzetara eraman behar dira eta proiektu hauek kudeatu egin behar dira. Hori dela eta, prozesu honen koordinatzaileon helburua ere bada,garapen ekonomikorako "guneak" presentzia iraunkorra izatea herrian, hausnarketa estrategiko honi jarraipena egiteko eta egoerak eskatzen dituen egokitzapenak eta sortzen diren aukerak aprobetxatzeko. Azken helburua herriaren egoera sozioekonomikoa hobetzeko bidea markatzea da, eta horretan denon partaidetza beharrezkoa da.

> AMAIA ZARRABEITIA, ELHUYAR aholkularitza zerbitzua

"Herritar eta eragileen parte hartzearekin diagnostikoa egingo dugu, eta hurrengo urteetarako estrategiak zehaztu"

Zein egitura edukiko du prozesuak?
Batetik arlokako mahaiak egongo dira. Lehenengoak merkataritza–turismoa landuko du eta bigarrenak itsasoa (arrantza eta itsasoa zentzu zabalean ulertuta). Mahaietan sektoreko pertsonek hartuko dute parte. Bestetik, kontraste-taldea egongo da. Talde honen osaera anitza izango da (emakume eta gizon, heldu eta gazte, auzo desberdinetako pertsonak, beste sektoreetakoak, etab.). Talde honen helburua herri ikuspegi zabala bermatzea izango da.

Horrez gain, prozesua antolatu, martxan ipini eta segimendua egiteko, Garapen Batzordea egongo da. Udaleko ordezkariak, Eskualdeko Garapen Agentzia eta Elhuyar Aholkularitza egongo gara bertan. Udalak izendatu duen pertsona batek arduradun batek hiru erakundeen koordinatzaile lana egingo du.

Zelakoak izango dira batzarrak? Eta zenbat izango dira?
Batzarrak dinamikoak izango dira eta parte-hartzea eragingo duten teknikak erabiliko ditugu. Pertsona bakoitzaren ikuspegitik abiatuta talde ikuspegia, herriarena eta eskualdekoa landuko ditugu. Denon artean diagnostiko bat eraikiko dugu. Horretarako, hausnarketa eragingo duten dinamikak planteatuko ditugu. Eztabaida ere bultzatuko dugu, talde txikietan eta talde handian, eta adostasunetara iristen saiatuko gara.

Prozesu honetan arlokako mahai bakoitzak hiru batzar egitea aurreikusi dugu, 2 ordukoak bakoitza. Lehenengoan, diagnostikoa konpartituko dugu. Bigarrenean, aurrera begirako erronkak identifikatuko ditugu. Eta, amaitzeko, erronka nagusiak lortzeko estrategiak proposatuko ditugu.

Zeinek parte hartuko du batzarretan?
Deialdi zabala egingo dugu. Lehen esan ditudan gaietan interesa eta zer esana duela uste duen edozein ondarrutarrek har dezake parte.

Zeintzuk dira prozesu honen helburuak?
Guk helburu orokor hau planteatu dugu: Ondarroan, 2013-2020 epealdirako, garapen ekonomikoaren gaineko hausnarketa estrategikoa egitea, herritar eta eragileen parte-hartzearekin.

Eta, bide batez beste helburu batzuk ere baditugu: Herritarren artean parte hartzeko kultura sustatzea, eta hausnarketa estrategikoak egiteko subjetu bihurtzea; herritarren parte-hartzeko aukerak zabalduz, bizitza komunitarioa eta politika herritarren zerbitzura jartzea, herrian dauden eragile desberdinen iritziak kontutan hartuta. Gainera, aurrera begira, herritarrez osatutako koordinazio-gune iraunkorra sortzeko lehen urratsak ere eman nahi ditugu.

Amaitzeko, komeni da esatea asmoa ez dela arazo estrukturalez berba egitea, arazo horietako gehienak konpontzea ez dagoelako gure esku. Saiatuko garena da sektore horien etorkizuna eta garapen ekonomikoa sustatzeko gure esku egon daitezkeen erronkak identifikatzen. Azken baten denon artean etorkizuneko Ondarroa irudikatzeko ariketa egingo dugu.

INGURUMENA

Allerin padura berreskuratu du udalak

> Artibai ertzean ibai-basoa ere landatuko du

> Lanak boluntarioek egingo dituzte, teknikari batzuen laguntzaz

Alleriko padura eta inguruetako ibai-basoa berreskuratzeko bi urteko plana landu du udaleko Ingurumen Batzordeak. Proiektu horrek bi ekimen aurreikusten ditu. Bata, Allerin padura berreskuratzen hastea, lur-hormak kendu eta ur filtrazioak bultzatuta. Bestea, Ibaiondo eta Zaldupeko ibai ertzetan basoa berreskuratzea.

Ibai-basoa berreskuratu

Zaldupe eta Ibaiondoko urertzak dira Ondarroan urbanizatu gabe dauden erreka-albo ia bakarrak. Urbanizatu gabe bai, baina nahiko degradatuta daude. Izan ere, landaredia gutxi dago bertan. Zaldupe inguruetan mantendu da bakarrik bertako basoa.

Udalaren proiektuaren asmoa da Zaldupeko basoa indartzea, eta Ibaiondoko erreka-alboetan landaredia berreskuratzea. Horretarako, ehunka arbola eta zuhaixka landatzea aurreikusi du Ingurumen Batzordeak: haltzak, lizarrak, haritzak, elorriak, zumeak.... Lan hauek ingurumenean adituak diren teknikariek gidatuko dituzte, eta boluntarioen bidez egingo dira. Lehenengo landaketak neguan egingo dira. Lagundu nahi duten herritarrek, helbide honetara idatzi behar dute: **komunikazioa@ondarroakoudala.net**

Hezegunea handitu

Alleriko padura gehiena lehortuta eta lurrez beteta dago. Udalak lur horietako batzuk padurari itzuli nahi dizkio. Horretarako, ubideak zabalduko ditu 6.000 m2-ko lur eremuan. Hain zuzen ere, itsas-lurtar eremuan sartuta dauden lurretan. Udalak uztailean eskatu zizkion ekintza hori burutzeko baimenak eremu horien kudeaketaz arduratzen den Kosta Zuzendaritzari. Aurreikuspenak ondo badoaz, datorren udabarrirako lortuko ditu baimenak.

Bideodibertsitatea indartu

Planaren asmoa inguru hartako biodibertsitatea handitzea da. Ibaiko basoa berreskuratuta, erreka-alboetan bizi diren espezieen biziraupena bermatuko da. Tartean, babestuta dagoen bisoi europarrarena. Gainera, paduran ur filtrazioak gehituta, bertako landaredia gehitzea aurreikusten du udalak, horrek hegaztientzako leku erakargarriagoa bihurtuko duelakoan. Izan ere, padurak hegazti askorentzako pausagune dira euren urteroko migrazioetan. Arrazoi horiengatik, Alleriko padura Babes Bereziko Gune izendatua dago Europan.

Beste helburu batzuk ere baditu planak: besteak beste, ibaiari leku gehiago eskaintzea, neguko ur handietan gainez egiteko tokia eduki dezan, eta auzo horretako paisaiaren kalitatea hobetzea

Udazkenean, irteerak

Urtean zehar Debanatura elkarteak Alleriko hegazti eta anfibioak ikertu ditu. Lan horien emaitza erakusteko, udalak irteerak antolatu ditu elkarte horretako biologoekin. Urriaren 20an eta azaroaren 3an, zapatu eguerdiak, herri guztiari eskainitako txangoa egingo dute, Turismo bulegotik irtenda. Hurrengo asteetan, ikastetxeetako ikasleekin errepikatuko dute ekintza bera. Alleri eta bere inguruak ezagutzeko aukera ona izango da!

Larruskainen bertoko basoa landatuko da

>Boluntarioek arbolak landatuko dituzte zazpi hektareatan.

>> Hiru hektarea nekazaritzako ere lagako dira.

Ondarroako Toxikomanoen Senideen Elkarteak lur batzuk zeuzkan Larruskainen. Bertan zegoen baserria egokituta zegoen, drogekin arazoak zituzten herritarrak bertara osatzera joateko. Proiektu horrek urteetan funtzionatu zuen, eta herriari onura handia ekarri zion. Baina etxeak sua hartu zuen, eta proiektua bertan behera laga behar izan zuten. 2001ean elkarteak udalari eman zizkion lurrak, baldintza batekin: arlo sozialerako erabiltzea. Hurrengo urteetan, ostera, pinudia eduki du udalak han, eta duela bi urte moztu egin zuen.

Lurra, beraz, biluzik geratu zen. Hori ikusita, Ingurumen Batzordeak bertoko basoa berreskuratzea erabaki du. Lan horretarako lurraren kudeaketa Lurgaia boluntario elkarteari lagako zaio, 20 urterako. Talde horrek basoa berreskuratuko du, herritarren laguntzarekin batera, eta auzolan-asteburuak antolatuko dituzte bertan. Tartean, 3 hektarea nekazaritzarako ere lagako dira, etorkizunean bertan proiekturen bat bultzatzeko. Proiektu honetan parte hartu nahi duten herritarrek helbide honetara idatzi behar dute: **komunikazioa@ ondarroakoudala.net**

Udalak uste du erakunde publikoak aitzindari izan behar direla bertoko biodibertsitatea sendotzen, eta horretarako bultzatu du proiektua. Gainera, Ondarroak lur horietatik pasatzen diren erreketatik hartzen du edateko ura. Beraz, inguru horietan basoa edukita, higadura gutxituko da eta uraren kalitatea hobetuko.

ELKARRIZKETA

> JOSEBA ZABALETA eta OIER ESPILLA, Hezkuntza eta Ingurumen zinegotziak

«Biodibertsitatea landuko dugu ikasturte honetan: padura berreskuratu eta bertoko basoa landatu»

Urtebetean Hezkuntza eta Ingurumen batzordeek lan asko egin dute elkarrekin ingurumen arloan. Aurtengo ere egitarau zabala daukate prestatuta.

Zer lan egin dute aurten zuen batzordeek ingurumen arloan?

Hasteko, Ingurumen Batzordea martxan ipini genuen, eta bertan herriko ikastetxeekin batzen gara. Ingurumenarekin ardura duten herritarrak ere hurbiltzen dira. Urtebetean, elkar ezagutu ahal izan dugu, eta ekintza batzuk antolatu ditugu: zuhaitzak landatu, herriko uraren ibilbidea ezagutu eta horren inguruko komiki bat ere banatu dugu ikastetxeetan... Gaztelekuarekin ere lan egin dugu: urari buruzko erakusketa ipini dugu, erreka garbitzera joan gara...

Ingurumen arloan proiektu gehiago lantzen ere bazabiltzate?

Bai, beste arlo batzuk ere lantzen gabiltza. Herriko kontsumo taldea handitzeko lanean gabiltza. Orain 10 familia bertoko baserritar baten produktu ekologikoak kontsumitzen dabiltza. Beste familia batzuk ere interesa agertu dute, eta gure asmoa da bigarren talde bat ere martxan ipintzea. Berdintasun Kontseiluarekin batera jardunaldi batzuk antolatzen be bagabiltza: munduko leku desberdinetako emakumeek nekazaritza ekologikoaren bidez bizimodua hobetzea eta jabekuntza pertsonala lantzea lortu dutela erautsi nahi dugu.

Kaleko argiterian kontsumoa jaisteko erreguladoreak ere ipiniko ditugu; bizikletentzako aparkalekuak ipini ditugu; udaleko bulegoetan birziklapena bultzatzen gabiltza... Beste hamaika asmo ere badauzkagu, eta denborarekin denak gauzatzen joatea gustatuko litzaiguke.

Ikasturte honetarako zeintzuk proposamen dituzue?

Aurten biodibertsitatearen arloa landuko dugu batez ere. Bi proiektu nagusi ditugu: Alleriko padura eta Artibai ibaiaren ertzak berreskuratzea, eta Larruskainen udalak dituen lurretan basoa landatzen hastea.

Alleriko paduran ubideak zabalduko ditugu, ura filtratu ahal izateko, eta paduraren zabalera handitzeko. Ibaiaren ertzetan errekako basoa berreskuratuko dugu. Lan hau ingurumen arloan adituak diren teknikariek gidatuko dute, eta herriko boluntarioek lagunduko dute. Helburua da herriko jendea proiektu honetan inplikatzea, espazio horren garrantziaz jabetzeko eta berau zaintzen laguntzeko. Ikastetxeak ere inplikatu nahi ditugu lan honetan. Uste dugu espazio horrek asko irabaziko duela ekintza hauekin, bai paisaje aldetik, eta baita biodibertsitate arlotik ere. Uxolei aurre egiteko ere baliagarria izango dela uste dugu.

Larruskainen bertoko basoa berreskuratuko dugu, elkarte baten laguntzarekin eta boluntarioekin. 7 hektarea inguru izango dira. Espazio hori ingurumen hezkuntzarako leku egokia da: Ondarroan edaten dugun ura bertatik hartzen dugu, adibidez. Asteburu baten Gaztelekukoekin bertara joatea gustatuko litzaiguke, ur iturriak ikusi, basoa landatu... Bertako 3 hektarea nekazaritzarako lagako ditugu, etorkizunean bertan beste proiekturen bat martxan ipintzeko.

BARRIMOTZAK

EUSKARA

> Nanoipuin lehiaketa

Zure idazle-gaitasuna proban jarri nahi baduzu, animatu eta parte hartu euskara batzordeak antolatu duen nanoipuin lehiaketan! Parte-hartzaile bakoitzak nanoipuin bi bidali ahal ditu, gehienez, 140 karakterekoak, eta gaia, berriz, librea.

Hiru sari emango dira: Lehenengo saria: 400 €. Bigarrena: 200 €. Hirugarrena: 100 €. 2012ko urriaren 25a arte aurkeztu ahal dira nanoipuinak. Epaia, berriz, azaroaren 3an emango da Ondarroako Kafe Antzokian 19:00etan egingo den ekitaldi batean, eta horren ostean jakinaraziko da Ondarroako Udalaren webgunean. Herriko idazle hauek osatuko dute epaimahaia: Ana Urkiza eta Leire Bilbao idazleek. Eurek aukeratuko dituzte ipuinik onenak, kontakizunik landuenak eta literatur baliorik handiena dutenak; hiru, guztira. Hartutako erabakia apelaezina izango da.

Ondarroako Udaleko posta elektroniko honen bidez bidal daitezke ipuinak: mrey@ondarroakoudala.net. Ezizen batez sinatua bidali zure nanoipuina eta baita zure izen-abizenak, NAN zenbakia eta telefono-zenbakia ere. Edozein pertsonak partu har dezake, edozelako adina duenak.

INGURUMENA

> Kaleko argiek erreguladoreak edukiko dituzte

Ondarroak diru asko gastatzen du kaleko argietan. Urtero, 85.000 euro inguru behar izaten dira kaleetan argia edukitzeko. Azken urteetan udalak kaleetako argi motak aldatu ditu, eta gitxiago kontsumitzen duten lanparak ipini ditu. Orain, beste pauso bat emango du energia aurrezteko: fluxua murrizteko sistema ipiniko du kale batzuetako argietan. Sistema honen bidez, farolek eskaintzen duten argi fluxua moldatu ahal izango da, egunaren eta orduaren arabera. Argi gutxiago behar denean farolen argiaren intentsitatea txikitu egingo da; argi gehiago behar denean, handitu. Sistema honekin energia aurreztea aurreikusten du udalak. Eta, energiarekin batera, dirua ere bai. 25 farola puntuz puntu kontrolatzeko sistema bat ere ipiniko du, aproba lez. Teknologia honek abantailak eskaintzen ditu: udaletxeko teknikariek farola bakoitza ordenagailu bidez kontrolatu ahal izango dute. Momentuan jakin ahalko dute farolaren batek arazorik badu. Ipiniko den teknologia guztia Euskal Herrian garatutakoa da.

> Musika Eskolan ere berziklatu daiteke

Hemendik aurrera musika ikasten ari diren herritarrek berziklatu egin ahalko dute musika eskolan. Bertako langileek aurretik birziklatzen zuten, eta orain erabiltzaileei ere aukera hori eskainiko zaie.

HEZKUNTZA

> Internet zerbitzua ipini da liburutegian

Udal liburutegira doanak, norbere ordenagailuarekin internetera sartzeko aukera edukiko du hemendik aurrera. Sarbidea kable bidez egingo da, barruko gelan. Udalaren asmoa liburutegiko beste espazioetan ere sarbideak ipintzea da.

HIRIGINTZA

> Amaitu dira Iturribarriko obrak

Urte hasieratik obran egon eta gero, amaitu dira Iturribarri egokitzeko lanak. Egindako aldaketen artean, oinezkoentzako espaloiak handitu dira, argiteria berria ipini da, eta kotxeentzako aparkalekuak berrantolatu dira. Laster, landareak ere sartuko dira sortu berri diren berdeguneetan.

> Futbol zelaiko lurra, anexura

Zaldupe inguruak futbol zelaitik kentzen ari diren lurra jasoko du. Horrela, anexuko futbol zelaiak eta eskolako inguruek lur gehiago edukiko dute, kirola edo landaketak egiteko.

KIROLA

> Ateak zabalik kirolari

Kirol batzordeak herrian egiten den kirola erakusteko argazki kanpaina bat ipini du martxan. 300 argazkitik gora jaso dituzte dagoeneko, eta kopurua gora doa. Parte hartu nahi duenak email honetara bidali behar ditu argazkiak: **kirolagenda@gmail.com**. Argazkian ateratzeko bandera Turismo bulegoan har daiteke. Bestetik, astero argitaratzen diren Kirol agendak eta Kirol emaitzek 11.000 bisitatik gora eduki dute. Bi ekimenak Ondarroako udalaren web orrian ikus daitezke: **www.ondarroa. eu**

EMAKUMEAK

Aurtengo jabekuntza eskolak Etxelilan egingo dira, emakumeen topaleku berrian

Aurten Jabekuntza eskolaren 8. edizioa abian jarriko du Berdintasun Kontseiluak. Dagoeneko 200 emakume baino gehiago hurbildu dira proiektu honetara; eta eurentzako topagunea izan da, gogoeta-lekua, eta euren burua prestatzeko bitartekoa ere bai. Askok Ondarroako emakumeentzat erreferentziazko toki fisikoaren beharra aipatu izan dute, eta aldarrikapen horiei erantzunez, ikasturte berriarekin batera, urritik aurrera, Ondarroako emakumeen topalekua estreinatuko dugu: ETXELILA Emakumin Topaleku. Espazio hau Artibai kalean dago, Institutu ondoko eraikinean. Jabekuntza eskolei buruzko informazio gehiago nahi duenak, udalaren web orrian lor dezake **(www.ondarroa.eu)** eta hemen ere bai: **94 683 36 70** edo **emakume@ondarroakoudala.net.**

ETXELILA
Emakumin Topaleku

KIROLA

Nagore Salaberria tolosarrak irabazi du Ondarroako Kirolariak Historian Zehar beka>>>

HERRIKO KIROLARIAK HISTORIAN ZEHAR ekimena aurrera doa. DINA BILBAOren bizitza jorratzeko aurkeztu ziren proiektuen artean, beka irabazi duena NAGORE SALABERRIA tolosarraren proposamena izan da. Salaberriak interneteko orri baten emango du bere lanaren pausoen berri. Beraz, laster ezagutuko ditugu lanaren lehen emaitzak, eta ikerketaren jarraipen zuzena egin ahal izango dugu. Beheko argazkian, Nagore Salaberria tolosarra Arantza Burgoa zinegotziaren eta Argia Ituarte alkatearen erdian.



ONGIZATEA

Herribus autobus berria martxan dago, ezinduentzako ere egokia >>> Duela urte batzuk herribusaren zerbitzua berritu zuen udalak, eta autobus berria ekarri zuten herrira. Dena dela, ibilgailu berri horrek herritar askoren kexak jaso zituen, ezinduentzako egokitua ez zegoelako. Ongizate batzordeak zerbitzu hori kudeatzen duen enpresarekin negoziatu du, eta ondorioz beste autobus berri bat ekarri dute. Ibilgailu honek ezinduentzako behar guztiak betetzen ditu, eta ohiko zerbitzua eskainiko du. Autobusaren ordutegiak aldizkari honen atzeko orrialdean kontsultatu daitezke.

HIRIGINTZA

Argi berriak Alde Zaharrean >>> Kale ibilaldietan Alde Zaharreko auzokideak euren kaleetako argien egoeraz kexatu ziren. Izan ere, lanpara horiek duela 10 bat urte ipini ziren, eta argi gutxi botatzen zuten, zaharkituta zeudelako. Orain, udala kaleko argi horiek barritzen dabil Alde Zaharrean. Iparkalean jada aldatu dira lanpara guztiak, eta alde zaharreko beste txoko batzutan ere aldaketak egiten dabiltza udaleko teknikariak.

UDAZKEN KULTURALA

«Marabilli»ren aurkezpena Ondarroako Kafe Antzokian>>> Irailaren 18an bota zen bolandera: Urriaren 11tik 14ra Marabilli Sormen Festibala izango da Ondarroan, Aitzol Aramaio Bengoetxea ondarrutar zinegilearen omenez. Argazkian, Argia Ituarte alkatea eta Manuelistak antolatzaileetako bi: Kirmen Uribe eta Txomin L. Aramaio.

Udazken "marabillosu", Aitzol Aramaioren omenez

> Ondarroako Udalak aurten lehen aldiz ospatuko den *Marabilli* Festibala lagunduko du.

>> Festibala Ondarroako erreferente bihurtzea nahi du udalak. Aurten, urriaren 11tik 14ra ospatuko da.

Aurtengo udazkena "marabillosu" izango da Ondarroan. Aitzol Aramaioren lagun eta senitartekoek hala erabaki zuten, eta haren omenezko jaialdi bat antolatu dute. Sorkuntza festibala izango da, eta artea Ondarroako txoko guztietara zabaltzea dauka helburu lez. Udalak ere ekimen hau posible egiten lagundu du proposamena jaso zuen lehen momentutik, herriaren etorkizun kulturalean eduki dezakeen eraginagatik. Udal gobernu eta kultura batzordearentzat garrantzitsua da herritik kanpo ere oihartzuna izango duen erreferentzia bat sortzea. Kasu honetan, erreferentzia kulturala izango dena. Herri askok dauzkate urtean zehar ospatzen dituzten era ezberdinetako ekitaldiak, hitzordu garrantzitsu bihurtzen direnak, Euskal Herrian zein nazioartean. Udalak konpromisoa hartzen du hurrengo urteetan ere antolatzaileei laguntza emateko, eta egin ahalak egingo ditu Marabilli Ondarroarentzako ikur bilakatzeko. Herritar guztien artean lortuko dugu Ondarroa "marabillosu" bihurtzea!

ELKARRIZKETA

> KIRMEN URIBE eta JOSU EIZAGIRRE, «Manuelistak», *Marabilli* antolatzaileak

«Guk nahi dugu jendeak berak ere sortzea, gauzak egitea kalean, hitza hartzea»

Antolakuntza lanetan diharduten Josu Eizagirre eta Kirmen Uriberekin egon gara eta hauxe kontatu digute:

Nondik dator Festibalaren ideia?
Kirmen: Festibalaren ideia aspalditik dator. Aitzolekin askotan hitz egiten genuen berba Josuk eta biok zerbait egin behar genuela Ondarrun kulturari lotua eta Euskal Herri mailakoa, eta begira, Aitzol ez dago baina bere ametsa bete dugu bere indarrarekin.

Sormen jaialdia izango da...
Josu: San Franciscoko urak dira horiek, Kirmenek handik ekarri zuen ideia. Baina gu geu arlo desberdinetako sortzaileak izanda interesgarria zela uste genuen artearen alderdi desberdinak batzea. Gainera, gure artean ez ginen ados jartzen ze motatako jaialdia egin, orduan ondo etorri zen Sormen izeneko zaku hori (kar kar).
Kirmen: Egia esan ez da egiten halakorik Euskal Herrian, hortik zehar hasi dira, eta hutsune hori bete nahi genuen, gure maila apalean.

Egitaraua ikusita erronka handia dirudi.
Josu: Eta hori ez ditugula sartu parte hartu nahi zuten guztiak. Mundu guztiak etorri nahi zuen jaialdira. Jende asko sartu dugu egitarauan, lehen mailako jendea eta baita apalagoak ere. Nahi genuen halako oreka bat egon zedin lehen mailako sortzaile eta hasiberrien artean, baita ere, Ondarroako eta kanpotarren artean. Lortu dugulakoan gaude. Orain sartu ez direnak hurrengoan egongo dira.

Ze helbururekin egingo diozue aurre?
Kirmen: Jaialdiak hiru helburu argi ditu. Lehena Aitzol Aramaio omentzea. Sortzaile eta Ondarroazale handia izan da. Bigarrena, lehen esandakoa, artearen arlo desberdinetako jaialdi bat antolatzea, anitza, kritikoa eta dibertigarria. Hirugarrena, parte hartzailea izatea. Artea ez da batzuk egin eta besteak ikusteko gauza bat. Guk nahi dugu jendeak berak ere sortzea, gauzak egitea kalean, hitza hartzea.
Josu: Helburuetako bat, baita ere, tokia uztea da. Hamaika dira estreinatu gabe geratzen diren filmak Euskal Herrian eta *Marabilli* horientzako toki bat da. Aukerak eman nahi diegu gure sortzaileei bere lanak erakus ditzaten jendaurrean.

Nolakoak dira espektatibak?
Kirmen: gure asmoa da ondarrutarrok ondo pasatzea eta herrira jendea hurbilaraztea. Hasierako inpresioak oso onak ari dira izaten, uste dugu interesa piztu dela behintzat. Horren adibide, festibaleko bideotxoa 1000 lagunek ikusi zutela eskegi zen egunean bertan!!!

Ezer gehitzeko?
Josu: Bai, izenarena. *Marabilli* deitzen da festibala Aitzolek ahominean zerabilelako hitz hori. *"Marabilli re"*, askotan esaten zuen. Baikorra zen gauza guztien gainetik. Eta horrexegatik web orriari ere marabilli.re jarri diogu, ondarrutarrez. Re hori Islas Reunioneko dominioa da eta gure irudi taldekoei asko kosta zaien arren azkenean lortu dugu orria ondarrutarrez jartzea: marabilli re.
Kirmen: Azkenik eskertzea laguntzaileen ekarpena, tartean udalarena, hasieratik babestu dutelako gure "ametsa".

Ondarroak bere 685. urteurrena ospatu du

Aurten berriro ospatu da Erdia Aroko jaia, eta aurreko aldietan lez, ondarrutarrek erantzun on-ona eman dute. Kaleak apainduta egon dira, jendea mozorrotu egin da eta herriko artistek kaleak jantzi dituzte, dantza, musika, antzerki eta marrazkiekin. Giroa mundiala izan da, nahiz eta goizean eguraldiak asko lagundu ez. Herritarren parte hartzerik barik, ezinezkoa izango litzateke jai hau antolatzea. Beraz, eskerrik asko jaia antolatzen ibili zareten danoi. Herri batzordean parte hartu duten taldeak hauek izan dira: 7 emakume en movimiento, Abantin guraso elkartea, Allarte, Artelan, Astilleru Itsas Modelismoa, Beheko Torre, Dantzarte, Galiza Etxea, Gazte Asanblada, Iparra guraso elkartea, Kantaizeko kantari gregorianoak, Lekittoko Deabruak, Ondarroako Argazkizaleak, Ondarroako Historia Zaleak, Pastor, Tramana ta Brix, Turismo Bulegoa, Txikiñe, Zaldupe Eskola Publikoa, Zubi Zahar herri ikastola eta baita be Iparkale, Kalandi, Erribera, Pixape, Nasa kalea, Kalekutze eta Goiko kaleko bizilagunak. Elkarte hauek ere lagundu dute: Andra Mari Parrokia, Euskal Herriko Kanpai Joleak, Gure Abixi, Kresala, Musika Eskola, Radixu Irratia, Naparbideak eta Ondarroako Metal Taldea. Esko bat bota duten beste herritar guztiei be, eskerrik asko bihotz-bihotzez!

TALDEAK BERBETAN

UDALBARRIAK ZABALIK DAGO TALDEEN IRITZIAK JASOTZEKO.
Bidali zeure taldearen idatzia helbide honetara: **komunikazioa@ondarroakoudala.net**

RADIXU IRRATIA

"Udaletxe Zaharreko teilatuarekin arazoak ditugu: zahar-zahar dago eta euria egiten duenean ur asko sartzen da barrura"

Radixu irratia komunikabide bat da, eta zentzu horretan, komunikazio alorrean egiten du lan. Radixu Irratia Ondarroako irrati librea da, eta autogestioa, ahots bakoen ahotsa izatea, pluraltasuna eta kontrainformazioa ditu ezaugarri. Asanblada bidez antolatzen da, independientea da eta publizitate gabe funtzionatzen du. Herritar guztientzako zabalik ditugu ateak!

Batez ere, irratsaioak egiten ditugu, baina horrez gain, Zapato Azuleko antolatzaileak ere bagara. Irratiko urteurreneko ekintzetan kontzertuak antolatzen ditugu.

Udaletxe Zaharreko ganbaran daukagu geure txokoa, eta bertan batzen gara hileko azken barikuetan. Orain gauden lekuan 22 urte beteko ditugu Gabonetan. Beraz, denboratxu daramagu beharrean.

Teknologia berriak aprobetxatuta, talde moduan eratutako mail bidez ere etengabeko harremana daukagu irratiko kideon artean. 20 bat kide dauzka Radixuk (15 mutil eta 5 neska) gutxi gora behera. Laster ARROSAko kide izango gara eta geure irratsaioak botatzeaz gain, beste hainbat irratitakoak be botako ditugu.

Aitatu modura, Udaletxe Zaharreko ganbaran daukagu lokala, eta bertako teilatuarekin arazoak ditugu. Zahar-zahar dago eta euria eta haizea egiten duenean ur asko sartzen da barrura.

Informazio gehiagorako: **www.radixu.info.** Irrati bidez **105.5 FM** edo online emititzen dugu.

BILDU

NAHIKOA DA! PNV gezurretan dabil

Ondarroako PNVk azken Udal Barriak aldizkarian "Bada zuzentzeko garaia" izenburupean ateratako idatziari erantzun beharrean aurkitzen gara, ez delako lehen aldia PNVk egia osoa esaten ez duena Udaleko kontuak direla eta. Testu honen espazioak ordea ez du ematen erantzunak behar duen estentzioaz aritzeko, eta abuztuan Ondarruko etxe guztietara helarazi genuen idatzi guztia berridazteko. Beraz udal kontuen gainean interesa duenak helbide hau ikus dezake: http://bildu.info/ondarroa/files/2012/08/bildu-2012ko-abuztua.pdf

Kontua da PNVren gezurrek ez dutela etenik. Irailaren 20ko El Correo eta Deian argitaratutakoak izan dira azkenak Bilduren kontrako gurutzada partikularrean. Bertan, PNVk dioenez, udaleko langileak gabonetako diruordain gehigarririk gabe geratuko dira Bilduren erabakiz. Badakigu hauteskunde kanpainan gaudela eta orain arteko Bilduren kontrako jarrera indartu baino ez dutela egingo, baina hortik inolako oinarririk ez duen gezurra asmatzera jauzi handia dago. Nondik atera du hori PNVk? Gabonetako paga gehigarria ordaindu ala ez, osoko bilkuran hartu beharko den erabakia da; Bilduk baiezkoa esango du. Bitartean, kontrakoa adieraztea gezurra esatea da.

Bilduk adierazia du, ahalegin guztiak egingo dituela Madrildik datozen murrizketarik ez aplikatzeko. PNVk ezin du berdina esan. Ondarroako PNVk, 2010eko Zapateroren 8/2010 dekretua, langileen soldataren %5eko jeitsiera agintzen zuena, lehen unetik aplikatu zuen. Aurten udal brigadari Bilduk aplikatutako %10eko igoeraren kontra erreklamazioa sartu du. Lea Artibaiko Mankomunitatean PNVk unilateralki negoziazio mahaia hautsi zuen, Bilduk eta langileen ordezkaritzak proposatzen zutena Madrildik datozen dekretuek ez dutela onartuko esanaz. Gaur da eguna, ez langileek ez gainerako alderdiek ez dakitela aurtengo konbenioa zertan den. Beraz, argi dago nor ari den Madriletik datozen murrizketen zaindari eta fiskal lana egiten. Gabonetako paga ordainduko ez dela gezurra ez balitz, ez genukeen jakingo gabonetako ordainsaria ordaintzea ala ez ordaintzea nahi duen PNVk. Egia esan, ardura handirik ez diola uste dugu, kontua Bilduren kontrako jarrera etengabea mantentzea baita, gauza bat ala bestea egin.

Beste behin ere esango dugu, Bilduk hartzen dituen erabakiekiko desadostasuna agertzea eta kritikatzea zilegia da. Ez, ostera, egin ez duena egingo duela esatea. Gezurretan aritzea ez da zilegia. Eta PNV gezurretan dabil.

bildu.info/ondarroa

EAJ

Aparkalekuak

Ondarroan dugun arazorik handienetakoa APARKALEKUENgatik da, edo hobeto esanda, aparkalekurik ez dagoelako. Lanetik bueltatzean autoa aparkatzea benetako burukomina izan ohi da. Gehienek, etxetik hurbil aparkatzeko zailtasuna izateaz gain, azkenean autoa oso leku urrunetan utzi behar izaten dute. Ez dira gutxi Ondarroatik pasatzen, baina bertan geratzen ez diren bisitariak, aparkalekurik ez dagoelako, hain juxtu.

Gaur egun, Ondarroan 3.000 baino gehiago dira erroldatutako autoak, eta aparkalekuak (kale eta lonjetan) 2000 inguru dira, hau da, 1000ko defizita dago.

Familien %78k auto propioa dute, eta lau pertsonetatik batek baino ez du autoa uzteko lonja edo aparkalekua. Beste modu batean esanda, automobil guztien %70 kalean utzi behar dira.

Ondarroak konponbide eraginkor eta jasangarria behar du arazo honi aurre egiteko. Gure ustetan, aukera bakarra da APARKALEKU SAREA eraikitzea, arazo hau duten gune guztiei zerbitzua emateko. Lan hau eginda, herritar guztien bizitza kalitatea hobetuko da, automobil eta oinezkoen arteko elkarbizitza hobetuko delako eta udalerria bizitoki atseginagoa izango delako.

Aparcamientos

Uno de los principales problemas que padece Ondarroa son los APARCAMIENTOS, o mejor dicho, la falta de los mismos. Estacionar el vehículo, especialmente al término de la jornada laboral, es un quebradero de cabeza. La mayoría no sólo tiene dificultades para aparcar cerca de su domicilio, sino que finalmente debe hacerlo en lugares alejados. No son pocos los visitantes que desisten de parar en Ondarroa, por dicha causa.

Hoy en día, existen en Ondarroa más de 3.000 automóviles censados, y una oferta total de aparcamientos (en vías públicas y en lonjas) inferior a 2.000 plazas, lo que pone en evidencia un déficit de más de 1.000 plazas.

El 78% de los hogares dispone de coche propio, y sólo una de cada cuatro personas cuenta con lonja o aparcamiento particular. En otras palabras, el 70% de los vehículos debe estacionar en la vía pública.

Ondarroa necesita una solución eficaz y sostenible para hacer frente a tal problema. En nuestra opinión, la única intervención posible es la construcción de una RED DE APARCAMIENTOS que atienda a todas las zonas afectadas por este problema. Esta actuación permitirá, además, mejorar la calidad de vida de todos los y las habitantes, ordenando y facilitando la convivencia entre vehículos y peatones, y convirtiendo el municipio en un lugar más agradable para vivir.

900 314 053 TFNOA. + ALAMEDAKO BUZOIA

2012ko uztailetik irailera bitarteko mezuak

DOHAINIK!

TELEFONO BEREZIA

Zuen kritikak, kexak, ideiak, proposamenak... DEITU!

900 314 053

24 ordutan martxan zure mezua lagateko!

ALAMEDAKO BUZOIA

Zuen kritikak, kexak, ideiak... zabalagoan kontatu nahi badiguzue, IDATZI GUTUNA eta bota BUZOI URDINEAN!

2012/07/15

1. *Institutua asteburuetan ez ezik, udan egun guztietan zabaltzeko eskatzen dut. Batzuntzako parkin pribatua izan beharrean, herrian daukagun arazoari soluzio osoa ez izan arren, arazoa arintzen lagunduko duelako.* Beste lau eskaera berdin.

Ez dago Udalaren esku. Institutoa prest egon behar da horretarako. Ahaleginduko gara berriro.

2012/07/18

2. *Artabidetik. Txakurre dakat, zentsata da, bakunata, lotute ibiltxen dot eta kaka etxen dabenin batu etxen dot. Ordun galderi de ia zeatxik Terraza Gorrixin ezin doten txakurraz sartu lotute bada.*

Terraza Gorria umeentzat egokituta dago, bizikletarik eta motorrik ezin da sartu ezta txakurrik ere solte.

2012/07/25

3. *Kamiñazpi 41etik. Herenegun deitu nuen eskaera bat egiteko eta segituan nire eskaera bete egin zenuten. Orain eskertzeko deitzen dut, ondo eginak eskertu ere egin behar direlako.*

Eskerrik asko.

2012/07/27

4. *Kamiñazpin frontoiko entradin parin pibote bi daz bañe goratxua beste bat edo bi ipini ze hor hegalin kotxik aparkaten dabe eta txarto egoten da pasateko.*

Aztertuko da.

2012/08/02

5. *Aurreko Udal Barriaken kexu bat etorri zen, Zaldupe Eskola Publikoko patiora gauez futbolean jokatzera etortzen diren gazteek ateratzen duten zarata dela eta. Zuen erantzuna, hau konpondu ahal izateko argiak itzaliko zirela esatea izan zen. Argiak ez dira oraindik itzali, beraz, gazte hauek nahi duten guztietan joaten dira patiora goizaldeko orduak arte futbolean jokatzera(…).*

Amatatuta dago.

6. *Mi denuncia es respecto al cementerio del pueblo. La dejadez y la suciedad campan por todos los sitios. Si no limpiaran dos usuarios no sé lo que pasaría. Solamente mirar los arboles que están entre los nichos y la mierda que se acumula entre ellos. Las ratas campan a sus anchas. Esperando que alguien tome cartas en el asunto. También a los usuarios del cementerio si nos quitarían una buena multa por dejar los trastos esparcidos por todos los sitios, otro gallo cantaría.*

Arduradunekin berba egin dugu eta bideratuko da.

2012/08/06

7. *Zigarru erretea taberna kanpoa jun bir ixaten danetik, taberna barrun askoz be hobeto egoten da. Baine, azkan aldixan itxuran erretzaile batzuai ahaztu eingakue ta taberna barrun erreten hasi diz danon kalteako. Mesedez eskatuko neuke, hau jentiau barriro kontzientzixateko, kartelen batzuk edo jarriko balitxakez. Bai eta be tabernerui be akorda erain. Zeinen konpetentzixi de hau kontrolati? Zenbateku de multi eta zeinek ordaintzeko?*

Ez da Udalaren konpetentzia.

2012/08/30

8.*Eguen gabeko 12:00ak dira eta pintxo pote dala eta ez dala, gure azpiko tabernak edukitzen duen zarata izugarria da. Jakin nahi dut taberna horrek musika horrela edukitzea legezkoa den. Ate doblerik ere ez du. Goizeko 6:00etan lanera joan behar den jendea bizi gara alde zaharrean eta lorik ezin eginda dagoena taberna hori dela eta.*

Tabernariekin behin baino gehiagotan batu gara honetaz berba egiteko. Berriro batuko gara, eta zarata zaintzeko eskatuko diegu.

2012/08/31

9. *Kamiñazpin, ikastola eta anbulategiko parea, txakur kaka eta kristalekin oso zikina dago. Ea ahal baduzue garbitu.*

Garbituko da.

2012/09/09

10. *Artabidetik. Momentu honetan Terraza Gorrian motor handi bat eta txakur bat daude. Jendea ibiltzeko tokia da eta errespetatu egin behar da. Jarri letreroren bat.*

Beste eskaera bat be egon da kexa bardinagaz.

Kartela jarrita dago.

2012/09/24

11. *Jakin nahi dut Txist eta Txinoetako aurrean noiz jarriko diren badenak, esan zenuenetik denbora pasa delako.*

Abuztuaren 6an esleitu zen badenak egiteko obra, Txist aurrean, Monika txalet aurrean eta anbulategiko aurrean. Bi hilabeteko epea du esleituak obra egiteko beraz urria hasieran amaituta behar dute.

2012/09/28

12. *Zubi Barrixan Stop-a dan tokixan, egun guztin zir, egunero hamen dan saltsi, pitara hotsa ez da eskubideik. Kotxik ezin pasata, pertsonak bez, Stop-an gañin kotxik aparkata. Ia erremedixo bat topatzen dotzazuen honei.*

Udaltzainei esan diegu goizetan leku hori ondo zaintzeko.

>>> GIZARTE ONGIZATEA

Ongizate Batzordeak sentsibilizazio kanpaina zabala antolatu du urrirako

Aspaldiko urteetan Ongizate Batzordea elkartu gabe igaro ostean, 2011ko urrian barriro batzen hasi ginen udaletxeko aretoan. Guztiok, alkar lanak dakarren aberastasunaz jabetuta, geure nahiak, ideiak eta proposamenak mahaigaineratzen hasi ginen. Herriko talde batzuk, urte askoan euren esparruan lanean ibiltzeaz gain, udal batzordeen egitura ere ondo ezagutzen dutenak dira; beste batzuk ordea, berri-berriak egitura honetan. Aurrenekoak esperientziaren isla dira eta gainerako batzordekideei zer azaldu daukate. Besteak ikasteko prest eta ahal dutena herriari eskaintzako jarreraz dabiltza.

Potentzial honetaz eta guztion bultzadaz baliatuta, Ongizate alorrean talde bakoitzak egiten duena herritar guztiei erakusteko helburua hartu, eta urrirako "sentsibilizazio kanpaina" lez deitu dugun hamabostaldia antolatu dugu.

Kanpaina honekin eta modu askotako jarduerak bideratuta, adin eta era desberdinetako jendearengana hurbiltzea nahi dugu, ezintasunak izan ditzaketen pertsonenganako enpatia lantzeko eta sarritan geure ezjakintasuna zein arduragabekeria medio, sortarazten dizkiegun mugak gainditzen joateko.

Hala izanik, Batzorde osoaren izenean, herritar guztiok gonbidatu nahi zaituztegu antolatutako ekintzetan parte hartzera, gure arteko hainbat pertsonek bizi duten egunerokotasun berezia ezagutzeko aukera aparta izango dela deritzogulako.

Alboko laukian daukazue prestatutako egitaraua.

• **URRIAREN 9tik 20ra**
JANARI BILKETA ikastetxeetan.

• **URRIAK 9, ASTEARTEA**
19:00etan, Kofradia Zaharrean.
HITZALDIA: "50 urte ezintasun intelektuala duten pertsonen bizi kalitatea hobetzeko bidea eginez"
HIZLARIA: Javi Bengoa. GORABIDEn eskutik (Adimen ezintasuna duten pertsonen aldeko Bizkaiko Elkartea)

• **URRIAK 10, ASTEAZKENA**
18:30ean, Kofradia Zaharrean.
PELIKULA: "IRIS". 2002ko pelikula Alzheimer gaixotasunari buruz. Iris Murdoch idazlearen bizitza.

• **URRIAK 13, LARUNBATA**
10:30-14:00, Itsasaurre plazan.
GURUTZE GORRIA, ATEAK ZABALIK: Umeentzako eskulanak, puzgarriak, lehen sorospenen karpa RCP basikoa zelan egin erakusteko, anbulantzia eta itsas-salbamenduko tresneria, simulakroa.

• **URRIAK 16, ASTEARTEA**
9:00etan, Kofradia Zaharrean.
HITZALDIA DBH 1 – 2ko ikasleei zuzendua. AVIFES (Senideen eta gaixotasun mentalaren Bizkaiko elkarteak).

• **URRIAK 17, ASTEAZKENA**
19:00etan, Kofradia Zaharrean
HITZALDIA: "Esklerosi Anizkoitzaren 1.000 aurpegi". ADEMBIren eskutik (Esklerosi Anizkoitzaren Bizkaiko Elkartea)
HIZLARIA: Olatz Zelaia.

• **URRIAK 18, OSTEGUNA**
18:30ean, Kofradia Zaharrean
DOKUMENTALA: Pertsona menpekoen zaintzaileen inguruko dokumentala. Ondoren, SOLASALDIA aditu baten laguntzarekin.

• **URRIAK 19, OSTIRALA**
19:00etan, Kofradia Zaharrean.
KIROL EGOKITUARI buruzko **HITZALDIA** eta ondoren **JARDUNALDI PRAKTIKOA** kiroldegian, LH 5-6 mailako ikasleentzat

ANTIGUAKO AMA ELKARTEAn:
18:00etan **BRIXKA txapelketa**
20:00etan **TXOKOLATADA**
Antiguako Ama Elkarteak antolatuta.

• **URRIAK 20, LARUNBATA**
KIROL EGOKITUAREN ERAKUSTALDIA 11:00-14:00
- Itsasaurre plazan: tandem bizikletak eta slaloma gurpildun aulkiekin
- Alamedan: mahai tenisa
- Musika plazan: Goal Ball
- Frontoian: pala eta tiro olinpikoa
• Eguraldi txarra balego, ekitaldi guztiak kiroldegian egingo lirateke.
• Herritarrek parte hartzeko aukera izango dute.

• **URRIAK 11,12,13**
GIZARTE-ONGIZATE taldeko kideen ekarpenekin osatutako **ERAKUSKETA,** Alamedako aretoan.
ORDUTEGIA:
Urriak 11-12: 18:30-20:00
Urriak13: 12:00–14:00

HERRIBUSA -ren ordutegia

ASTEGUNETAN:

Kamiñazpi - Arta	**07:45**
Arta- Kamiñazpi	**08:00**
Kamiñazpi - Arta	**08:20**
Arta- Kamiñazpi	**08:35**
Kamiñazpi - Arta	**08:50**
Arta- Kamiñazpi	**09:10**
Kamiñazpi - Portu	**09:25**
Portu - Kamiñazpi	**09:40**
Kamiñazpi - Arta	**09:55**
Arta- Kamiñazpi	**10:10**
Kamiñazpi - Portu	**11:00**
Portu - Kamiñazpi	**11:15**
Kamiñazpi - Portu	**11:45**
Portu - Kamiñazpi	**12:00**
Kamiñazpi - Arta	**12:35**
Arta- Kamiñazpi	**12:55**
Kamiñazpi - Arta	**13:10**
Arta- Kamiñazpi	**14:10**
Kamiñazpi - Portu	**14:30**
Portu - Kamiñazpi	**15:45**
Kamiñazpi - Portu	**16:00**
Portu - Kamiñazpi	**16:15**
Kamiñazpi - Arta	**16:40**
Arta- Kamiñazpi	**17:00**
Kamiñazpi - Portu	**18:00**
Portu - Kamiñazpi	**18:15**
Kamiñazpi - Portu	**18:30**
Portu - Kamiñazpi	**19:00**
Kamiñazpi - Portu	**20:00**
Portu - Kamiñazpi	**20:15**
Kamiñazpi - Portu	**20:30**
Portu - Kamiñazpi	**20:45**

ZAPATUTAN:

Kamiñazpi - Portu	**09:15**
Portu- Kamiñazpi	**09:30**
Kamiñazpi - Portu	**09:45**
Portu- Kamiñazpi	**12:15**
Kamiñazpi - Portu	**12:30**
Portu- Kamiñazpi	**12:45**
Kamiñazpi - Portu	**13:00**
Portu- Kamiñazpi	**13:15**

JAIEGUNETAN EZ DAGO ZERBITZURIK.
(Ebaki Herri Busaren ordutegia, gorde patrikaran, eta erabili)

Kolorez betetako Andramaixak

> Datorren asteetan jaietan gastatu den diruaren berri emango du Udalak

>>Udalak herritarrak animatu nahi ditu 2013ko jaiak antolatzen laguntzera

Aurtengo andramaixak ere polito joan ziren. Ekitaldi gehienetan jende askok hartu zuen parte. Urtero lez, ur jokoek ikuskizun ederra eskaini zuten. Hilaren 13an, gazteek kaleak hartu zituzten. Kuadrila egunean, kirolariz bete ziren herriko txokoak... Kontzertuek eta ikuskizunek ere arrakasta handia eduki zuten: Kosakoen balletak Itsasaurre bete zuen; Musika Plazako kontzertuek ere jende ugari erakarri zuten, baita frontoiko kirol ikuskizunek ere.

Aurten be ehunka herritar ibili ziren jaiak aurrera ateratzeko beharrean, borondatez. Lan hori barik, ezinezkoa izango litzateke Andramariak ospatzea. Ez behintzat gaur egun ezagutzen ditugun bezala. Udalak eskerrak eman nahi dizkizue jaietan ere esku bat botatzeko tartea topatzen duzuen denoi, eta ondarrutar guztiak animatu nahi ditu datorren urteko jaiak antolatzen laguntzera. Zenbat eta herritar gehiagok lagundu, hobeto pasako dugu denok, eta jaiak be biziagoak izango dira.

Udalak datorren asteetan emango du jaietan gastatu den diruaren berri. Nahi duenak, **www.ondarroa.eu** orrian ikusi ahal izango du informazio hori.



KONTUAN HARTZEKO EKITALDIAK:

• **URRIAren 9tik 20ra,**
GIZARTE-ONGIZATEA, SENTSIBILIZAZIO KANPAINA
Egitaraua, aurreko orrian.

• **URRIAren 7tik 21era,**
ERDI AROKO DOKUMENTUEN ERAKUSKETA
Kofradia Zaharrean

• **URRIAren 11tik 14ra,**
MARABILLI SORMEN FESTIBALA

• **URRIAren 21ean,**
Eusko Legebiltzarrerako HAUTESKUNDE EGUNA

• **URRIAren 24tik azaroaren 3ra,**
«LITERATUR AMUAK» LITERATURA ASTEA
Adi egitarauari.

• **AZAROAren 10ean,**
«Eskubide guztiekin, Euskal Herrira», euskal preso eta iheslarien aldeko MANIFESTAZIOA
15:30ean, BAIONAN

• **AZAROAren 22an,**
SANTA ZIZILI EGUNA, MUSIKEROEN EGUNA.
Adi egitarauari.

• **AZAROAren 25ean,**
EMAKUMENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

• **ABENDUAren 1ean,**
HIESAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA.
Gure artean ez daudenen omenez eta gaitza pairatzen dutenei elkartasuna adierazteko, jarri ezazue leihoan edo balkoian, izara zuria lazo gorriarekin.
Eta ez ahaztu prebentzioa.

• **ABENDUAren 3an,**
EUSKARA EGUNA
Adi egitarauari!

• **ABENDUAren 6tik 9ra,**
EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA DURANGON

• **ABENDUAren 15ean,**
BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA FINALA
17:30, Bilboko Miribillan

Agenda: www.ondarroa.eu/eu-es/Gertakariak/

UDAL TELEFONOAK

www.ondarroa.eu

UDALETXEA
MUSIKA PLAZA z/g
1.pisuan:

Idazkaritza	94 6833674
Alkatetza	94 6833676
Bulego Teknikoa	94 6833677
Kultura eta Kirol Saila	94 6833669
Euskara Zerbitzua	94 6833668
Berdintasun Saila	94 6833670

PLAZA AZPIKO BULEGOAK

Erregistro orokorra	94 6833672
Udaltzaingoa	94 6833673
Gizarte Zerbitzuak	94 6833671
Kontuhartzailetza	94 6833666
Kontsumo Bulegoa	94 6830498
Bake Epaitegia	94 6833679

BESTE UDAL ZERBITZUAK

Kiroldegia	94 613 42 09
Artibai Egoitza	94 683 32 31
Musika Eskola	94 613 40 63
Liburutegia	94 683 33 43
Turismo Bulegoa	94 683 19 51
HHI - EPA	94 683 27 55

TELEFONO INTERESGARRIAK

Osasun Etxea	94 603 79 99
Gurutze Gorria	94 683 19 29
SOS Larrialdiak	112
Suhiltzaileak	94 616 89 92
Itsas Sanitatea	94 683 10 00
Alkoholiko Anonimoak Elkartea	94 683 20 86
Emakunde	945 13 26 13
Bizkaibusa	902 222 265
Euskotrena	902 543 210
PESA	902 101 210
Taxi-Geltokia	94 683 26 86
Kofradia	94 683 01 50
Txalupen sarrera	94 683 02 23
Enplegu Bulegoa	94 683 07 00
Butanoa	94 616 62 54
Iberdrola	94 415 14 11
Telefonika-Aberiak	1002
Ura- Partzuergoa	94 487 31 87
Postetxea	94 683 15 01
Parrokia	94 683 01 98
Notaritza	94 683 00 83
Arraun Egoitza	94 683 33 35
Zaldupe Zelaia	94 683 10 53
KZgunea	94 683 33 45
Lea-Artibai Amankomunazgoa	94 616 90 68
Lea Artibai Garapen Agentzia	94 683 34 95

Gogoratu!

EUSKAL PRESO ETA IHESLARIAK ETXERA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK EZ

EZ PASA!